

AURKEZPENA

Gizarte inklusiboa bultzatu nahi dugun lan taldea gara eta guri dagokigun alorrean lan eginez, hau da, hezkuntzan, egin nahi dugu gure ekarpena inklusiorako bide horretan. Gizartera eta etorkizunera begira dagoen taldea gara beraz, partaide guztiak kontutan hartzen dituen gizartean sinisten duena. Badakigu asko dagoela egiteke eta oraindik bidea luzea izan daitekeela. Garrantzitsuena, hala ere, bidea egiten ari garela da. Guk aukeratutako bidea, guztiontzako justuagoa eta berdintsuagoa den gizarte batera eramango gaituena. Hortik gure izena: **BIDEAN**.

Gure bide horretan, etorkinen inklusioa sustatzea dugu ardatz. Etorkinak kolektibo garrantzitsua dira gurean eta, aukera berdinak izan ditzaten, egoera larrietan daudenen eta zaugarrienak direnen eskura jartzen dugu gure zerbitzua. Bestalde, hezitzaile bezala, haurren ongizatea da gure desira; haur guztien ongizatea. Eta badakigu haurren ongizatea bermatzea ezinezkoa dela haur horien familiena bermatzen ez bada. Horrexegatik, familiei ongizate eta inklusiorako tresnak bereganatzea erraztu nahi diegu, haur horien zaintza arduratzen diren eta inklusiorako bidean euskara ikasi, helduentzako eskolara joan edo lanbideko ikastaroren bat egin nahi duen helduei, haurren kalitatezko zaintza inklusiboa eskainiz. Familiaren osotasunean eragitea da gure helburua eta zerbitzu hau publikoa eta doakoa izan dadin lan egingo dugu, inklusioa beharrian kolektibo modura ulertzen dugulako. Gure zerbitzuak aurrekaririk ez duela eta guztiz beharrezkoa dela uste dugu. Inklusiorako ibilbidean aukera polita eskaintzen dugula pentsatzen dugu.